


Abendukoa



Abendukoa

irudiak:

IRRIMARRA ilustrazioa

ipuina:

Yolanda Arrieta



BOOKTEGI

Guztion liburua, guztiontzat

booktegi.eus

Ipurtargi gaztea parkean bizi zen. Gurasoak, basoan.
Denbora gutxi zeraman bere kontura bizitzen baina
gauza asko egiten zuen, jada, inor gabe: jana
prestatu, etxola garbitu, lan egin...




Baina abendu hartan argia joan zen hiriko parkean
eta ipurtargiak ez zekien arazoari nola aurre egin.

—Ipurdiko argiak atzea baino ez dit argitzen! —esaten
zuen, buztanari begira.

Erdi zorabiatu zegoen, bira eta bira, ipurdiko argia
harrapatu nahi eta ezin.

—Amari hots egingo diot —pentsatu zuen—. Amak
beti jakiten du zer egin.



Ipurtargi gazteak egunero hitz egiten zuen senideekin, telefonoz. Abendu hartan, ordea, sakelakoaren bateriak pot egin zuen!

—Ai ene! Eta bateria kargatzeko argi-indarrik ez!

Zer egin, zer egin, zer egin? Ipurtargi gazteak atze aldean argia, bai, baina aurre aldean, dena ilun-ilun!



Zer egin, zer egin, zer egin?! Hiruzpalau minutuz hausnartu ondoren, gauza bat otu zitzaion:

—Mezu bat idatziko diet etxekoei ipurdiko argiaz baliatuz. Eta halaxe egin zuen. Zeruan islatu zuen mezua:

Etxean kax-kax,
etxean kox-kox!
Argia joandakoan,
amatxo, zatoz!



Amak berehala erantzun zion basoko etxetik.
Modu bera erabili zuen:

Parkean kax-kax,
parkean kox-kox!
Lagunak biltzean,
argia ere poz-poz!


Ipurtargi gazteak behin eta berriro irakurri
zuen etxetik jasotako mezua:

—«Lagunak biltzean, argia ere poz-poz!»?

—galdetu zion bere buruari,

denek entzuteko moduan—. Zer esan nahi
ote du horrek?





Hontza zegoen alboko zuhaitzean. Ipurtargiak ez zuen ikusten baina hontzak bera bai.

—Motel! —esan zuen hontzak ujuka—. Hi bezalakoekin biltzeko! Argi baino argiago zagok hori!

Ipurtargiak denboratxoa hartu zuen hontzaren kokapenaz jabetzeko.

—... Jakina... —esan zuen, ipurdiko argiaz hontzaren habia argiztatuz—. Mila esker!

—Ez, horregatik! —erantzun zion hontzak, buruaz bira erdi emanaz.

Ipurtargi gazteak hilabete osoa behar izan zuen bera bezalakoak bilatzeko.

Baina lortu zuen! Eta abenduaren azken gauean den-denak bildu zituen parkearen erdi-erdian:

—Bat, bi eta hiru!

Ipurtargi guztien argiak piztu ziren.

—Haraa! —egin zuten hiritarrek eta abereek, harrituta.





Bai, abendu hartako azken gauean, deeeeenak bildu ziren
parkean, basoko senideak barne, eta bertan ospatu zuten
urte berriaren etorrera, ipurtargien argi bereziaz inguratuta:

Hirian, kax-kax,
hirian, kox-kox!
Elkarrekin argi,
elkarrekin poz-poz!



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eu